

Edurne Begiristain Gasteiz

Foru hauteskundeetan hamahiru eserleku lortuta, Arabako ahal-dun nagusi izateko aukera eskura dauka Ramiro Gonzalezek (Burgos, Espainia, 1962). Gainerako alderdiak «elkarguneak» bilatzeko prest ikustén ditu, eta akordio zabalak bilatzen saiatuko da.

Pozik zaude hauteskundeen emaitzekin?

Bai. Gure erronka foru hauteskundeak irabaztea zen, eta alde horretatik helburua bete dugu. Egia da gehiengo zabalagoa lortzea espero genuela, eta nahi baino estuago irabazi dugula. Araban aldaketa beharrezkoa dela esan dugu behin eta berriz, eta gure garai penarekin aldaketa hori erabat bermatuta dago.

Gertu duzu ahal-dun nagusi izateko aukera.

Bai. Uste dut gobernu aukera zentzuzkoena EAJ eskaintzen duela, eserleku gehien lortu duen indarra delako, gainerako indar politikoekin negoziatzeko eta akordioak lortzeko gaitasun handiena duelako eta ez dagoelako gehiengo altermatiborik.

Biltzar Nagusietan ordezkaritza lortu duten alderdiekin lehen hartu-emanak izan dituzu jada. Zein jarrera antzeman diezu?

EH Bildu, PSE, Irabazi eta Ahal Dugu-rekin hartu-emanak izan ditut, eta PPrekin eta Ciudadanosekin hitz egitea falta zait. Elkarrikeria horiek gaur eta bihar artean amaitzea espero dut. Elkarrikeria horien balorazioa positiboa da. Izan ere, orain arte bildu naizen alderdiek uste dute aldaketa beharrezkoa dela, eta prest ikusi ditut elkarguneak bilatzeko.

Inbestidurarako eta gobernagarritasuna bermatzeko babes beharko duzu. PSE da aukera sendoena akordioak lortzeko?

Akordioak lortzeko aukera bideragarria PSE-EE da, baina ez da aukera bakarra. Ez dugu zertan akordioa sozialistekin bakarrik bilatu. Sozialistekin ez ezik, gurekin akordioa lortu nahi duten beste indar batzuekin ere adostasunak lor ditzakegu. Gaur-gaurkoz, bildu naizen alderdi bakar bat ere ez dut baztertzen akordio-etarako.

EAJ prest agertu da PSEekin koalizio gobernuak osatzeko udal eta foru erakundeetan. Berraz, Araban PSE-EE da zure lehentasuneko bazkidea?

Joan den legealdian akordio garrantzitsuak lortu genituen PSE-EEekin, batez ere, zerga sistemaren erreforma adostu genuelako. Hortaz, badugu ibilbide bat egina elkarrekin. Egia da PSEekin



RAMIRO GONZALEZ / ARGAZKI-PRESE

«PSErekiko akordioa da bideragarriena, baina ez da aukera bakarra»

Ramiro Gonzalez • EAJko Arabako ahal-dungai nagusia

Ekonomia eta zerbitzu publikoen gainean «aldaketarako akordioa» lortu nahi du EAJko hautagaiak. Gasteizen, berriz, Marotori aginte makila kentzea posible dela dio, «akordio politikoa» baldin badago.

akordioa lortzeko aukera handiagoak ditugula, baina Araban akordioa ez dago PSEra mugatuta. Akordioa lortu nahiko nuke gainerako alderdiekin, betiere zenbait oinarritan bat egiten badugu.

Zeintzuk dira oinarri horiek?

Arabian aldaketarako akordioak bi oinarri izan behar ditu: batetik, ekonomia suspertzea eta enplegua sortzea, eta, bestetik, Arabako zerbitzu publiko eta sozialak berreskuratzea. Edozein akordio ardatz horien gainean lortu behar dugu.

Norekin ikusten duzu aukera handiena arlo horietan ados jartzeko?

Joan den legealdian oposizioko talde guztiek bat egiten zuten orokorrean printzipio horiekin, eta EAJk akordio garrantzitsuak lortu ditu PSEekin eta EH Bildurekin. Baina beste kontu bat da orain alderdiak oinarri horiek praktikara eramateko prest dauden ala ez. Printzipio orokor horien letra txikia praktikara eramatean egon liteke zailtasuna.

Gutxiengoan gobernatzeko aukera mahai gainean duzu?

Azken hamarkadetan mota guztietako gobernuak egon dira Biltzar Nagusietan, eta aukera guztiak daude mahai gainean. Nire nahia da babes zabalago izango duen gobernu bat eratzea. Horrek

ez du esan nahi koalizio gobernu bat eratu nahi dudunik; izan liteke, edo ez. Argi dut ahalik eta babes zabalena lortu nahi dudala.

Javier de Andresek ez du baztertu bere hautagaitza aurkeztea, ezkerreko fronte bat sortzen bada.

PPk izan duen porrota ezkutatzeko maniobra hutsa dela uste dut, eta ez diot etorkizunik ikusten. De Andres prest agertu da kontzertu ekonomikoa eta diputazioa desagertzea nahi duen alderdi batetik akordioak egiteko... PP edozein gauza egiteko prest dago aginte makilari eusteko baldin bada. Norberak jakingo du zer egiten duen.

PPekin akordioak lortzeko aukera ikusten duzu?

Proposatzen ditugun oinarriekin bat egiten badu, ez dizkiot ateak inori itxiko, baina gaur-gaurkoz ez dirudi PPK bat egiten duenik EAJren proposamenekin. Ni guzti-ekin negoziatzeko eta akordioak lortzeko prest nago, hala ere.

«EAJ prest dago gehiengo zabalena bilatzeko legealdi honetan Gasteizen gobernu era dadin»

EAJk emaitza onak lortu ditu Araban, ez ordea Gasteizen. Zer erantzuten dio horrek?

Ez naiz ausartuko arrazoi bakar bat ematera, baina analisi eta autokritika bat eskatzen digula uste dut. Hausnarketa egin beharko dugu luzera begira.

PPk eutsi egin dio Gasteizen, emaitza onak aterata.

PPren indar guztia Gasteizen dago. PPK eutsi egin dio Marotok botoa erakartzeko duen gaitasunari esker. Izan ere, De Andresek Marotok baino 6.000 boto gutxiago ateratu ditu Gasteizen. PPK kezkatuta egon beharko luke, desagertzeko zorian dagoelako, eta egun gizon bakarrek alderdi delako.

Maroto alkate ez izateko aukerarik ba al dago?

Aukerarik baldin badago, politikak adosteko gaitasunaren arabera izango da. EAJk esan du ez duela parte hartuko hautagai jakin bat suntsitzeko estrategietan, kasu honetan Maroto kanporatzeko. Baina prest gaude gehiengo zabalagoak bilatzera bideratutako negoziazioetan parte hartzeko, gehiengo horiek akordio politikoen gainean erakitzen badira. Horretan ari da EAJ une honetan. Ez dugu bat egiten hautagai bat beste baten ordez jartzearekin, atzean ez badago legealdian garatu beharreko politiken gaineko itun edo akordio bat. Aukera guztiak zabalik daude egun.

Aldaketarako ateak ez daude itxita, berraz?

Ez, baina eragiketara hori ez da erraza. Kontua ez baita ekainaren 13an hautagai bati ala besteari botoa ematea. Atzean legealdi osorako politiken gaineko akordio bat egon behar da, eta hori da zailena. Alderdi bat baino gehiago behar da, eta honezkerok PSEk esan du ez duela parte hartuko.

Zaila bai, baina ez ezinezkoa.

Zaila da, baina EAJ prest dago gehiengo zabalena bilatzeko legealdi honetan Gasteizen gobernu era dadin.